



«Nire aitatxi nor zen jakin zenezan nahi nuen»

Hedy Herrero • Ikertzailea

Ezkabako gotorlekuan 1934. eta 1945. urteen artean preso izandakoak ikertzen eta dokumentatzen aritu da Herrero urte luzez. Nor ziren azaldu du liburu batean: «Orain biloben eskura daude».

Iker Tubia Iruñea

Teodoro Hernan Aguado, Ezkabako gotorlekuko 760. presoa, Vicenta Lopez Castellarren senarra. Halen biloba Hedy Herrerok (Bonn, Alemania, 1959) aitatziren eta beste 5.917 presoren izenak eta izanak bildu ditu *Entre rejas* liburuan (Pamiela, 2020). Katakraiken aurkeztu du preso halen hiztegi biografikoa. **Aitatziri segika murgildu zara memoria historikoaren ikerketan?** Etxean txikitik hitz egin zidaten Ezkabako gotorlekuaz, eta 2008an

ezagutu nuen bertatik bertara. Izebak gotorlekuko ereserkia erakutsi zidan, pentsa.

5.917 presoren izenak ez ezik, izanak ere bildu dituzu, ezta?

Mikrobiografiak daude. Ageri da norekin ezkondu ziren, seme-alabak, jaioterria, baina, halen bizitzar pertsonek bainoago, kartzelako ibilbideari eta bizitza politikoari eman dilet garrantzia. Jende garantzitsu asko agerl da, eta argigarria da jakitea zergatik atxilotu zituzten. **Zenbaki hutsetik harago, pertsonak agertzea zen zure asmoa?**

Noski. Helburu nagusia presoak humanizatzea zen. Aitatzirekin nor egon zen jakin nahi nuen, eta nire aitatxi nor zen jakin zenezan nahi nuen, eta, bera bezala, gainerako 5.916ak. Izan ere, jende askok ez daki zein izan zen halen senideen kartzelako ibilera.

Gotorlekuan gatiburu egondako pertsona la guziak bildu dituzu?

Oraindik ehun eta pikto lizen ditut erkatzeke, baina ez ziren askoz gehiago izanen. 500 inguru falta direlaikoan nago; Ezkaban ez ziren izan 7.000 preso baino gehiago.



JAGOBIA MANTEROLA / FOKU

ATZEKOZ AURRERA

«Eskerrik asko nire alta behar den tokian jartzeagatik: bibliotekan». Zer sentitu zenuen esker hitz horiek aditu zenituenean?

Hitz horiek... Hunkitu nintzen, eta merezi izan duela sentitu nuen. Emakume hori 1936ko abenduan sortu zen. Bere bilobak liburua operitu dio Eguberrieta, 84 urte bete berritan. Andaluziarra da, eta ez da inolz Iruñean egon. Liburua hartu eta argazkiak begiratu zituen. Bere alta aurkitzean, negarrez hasi zen.

Liburutegia da pertsona horiei luzez ukatu zaien tokia?

Lehenbizi familiako sekretua izan da; ez zuten nahi kontu horiek etxetik ateratzerik. Ez zaltezte nabarmenduesaldia garai hartan oso ohikoa zen. Baino orain, hor dago, hor daude, liburuetan, seme-alaben eta biloben eskura.

Zergatik ez dizute utzi Iruñeko espeltegia agiriek kontsultatzen?

Duela urte anitz eskatu nuen baimena, baina ez didate erantzutzen. Ana Ollori ere ohartarazi nion. Badakit hor daudela, presoak hildako tokian geratzen direlako agiri horiek. Agiri bakotzetik hiruzpalau izen atera ditzaket, horregatik dut interesa. Ez dut ulertzten zergatik jartzen duten hainbeste traba.

Zer falta da egiteko?

Esandakoez gainera, izenak biltzen jarraitu eta dauden hutsuneak betetzen salatu. Eta deskantsatzeko beharra dut, denbora anitz eskaini baitiot honi. Barne-barnetik atera den lan bat da hau.

LOTSABAKO

Liburu bat? Felix Sierra eta Iñaki Alfonjaren *La gran fuga de las cárceles franquistas*.

Kanta bat? Barricadaren 22 de mayo.

Erreferente bat? Aitatzxi eta amatxi. **Omenaldirik oneña?** Aitorta; halen izenak ezagutzea.